

104. zenb.

XLII. URTEA
2024 UZTAILA-ABENDUA

ISSN 2530.3287

**Marcela
Fritzler**

[Sin Fronteras. proyectos educativos](#)

ORCID: 0000-0002-9648-485X

info@marcelafritzlersinfronteras.com

Bestelako lankidetzak

55 urtetik gorako helduen hizkuntzen ikas-irakaskuntzarako ikuspegi bat

55 urtetik gorako helduei beste hizkuntza bat irakasteko ikuspegi pedagogiko espezifikoa behar da, bai eta haien beharrak eta interesak errespetatuko dituzten ikaskuntza estrategikoak izango dituen didaktika bat ere. Irakasleak haien ikas-irakas prozesuan inplikaturako faktore afektibo, kognitibo eta sozialak ulertu behar ditu, bai eta aipaturako adin-tarteko ikasleek dituzten motibazio-ardatzen azpian dagoen erronkaz jabetu ere.

Artikulu honetan, helduentzako metodologia baten oinarri diren zutabe pedagogikoak deskribatuko dira laburki, eta zenbait jardueraren adibide zehatzak emango dira azaldutako teoria praktikan jartzeko.

Gako hitzak

adinaren eragina, didaktika, ikasle helduak, ikuspegi pedagogikoak

1. SARRERA

Pertsonak betidanik izan dute beste hizkuntza batzuk ikasteko interesa eta beharra, beste herrialde batzuetan komunikatzeko eta beste errealitate batzuk ulertzeko. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke, besteak beste: profesionalak, ekonomikoak, akademiakoak edo pertsonalak (hala nola burua aktibo izatea, senitartekoekin komunikatzea edo aisialdi arlokoak, adibidez, bidaiatzea). Dena den, helburu horiek eragiten dituzte, hain zuzen ere, inhibizio-arazoak, frustrazioa edo ikasteko interesa galtzea.

55 urtetik gorako helduentzako bigarren hizkuntzako edo hizkuntza gehigarri bateko klase bat diseinatzeko abiapuntua hau da: aintzat hartu behar da ez direla mihise zuriak; aitzitik, kultura- eta hizkuntza-ezagutza, aberatsagoa edo pobreagoa, duten gizabanakoak direla, beste hizkuntza berri baten ikaskuntzan eragin sakona dutenak.

Lehenengo hizkuntza modu naturalean eta berez ikasten da; bigarren hizkuntzan, ordea, kodea (hizkuntza) irakasteko metodoa eta prozesuko parte-hartzaileei egokitzen zaien metodologia egituratu behar dira (Ellis, 1996, 5. or.).



Helduen garunak, nahiz eta neurologikoki ikasteko prestatuta dagoen, dagoeneko ez du ezagutza berriak jasotzeko plastikotasun bera, haren diskriminazio fonologikorako gaitasuna murriztu egin da, eta ezagutzaz jabetzeko duen moduak ikasteko trebetasunetan segurtasuna eta konfiantza emango dioten dinamika-sorta bat eskatzen du.

Hala ere, ikasle heldu horiek tresna baliotsuak izaten dituzte: kontzientzia metakognitibo handiagoa, hizkuntzaren egiturez hausnartzeko gaitasun handiagoa eta, aurretik aipatu dugun bezala, motibazio argia.

Ikasle heldu nagusiek, oro har, hasieratik komunikatu nahi izaten dituzte ideia konplexuak, lehen hizkuntzako diskurtsoan bezala, akatsekiko tolerantzia-maila txikiagoa izaten dute, eta "irudi" pertsonalarekiko kezka handiagoa, bai eta oztopo afektibo posibleak ere, hala nola antsietatea edo barregarri geratzeko beldurra. Era berean, denborapresioak senti ditzakete erantzukizun pertsonalak, familiakoak (bilobak zaintzea, adibidez) eta, oraindik ere lan-merkatuan badaude, profesionalak ere bai.

Ezaugarri horiek oztopo zein aukera izan daitezke ikasprozesuan. Batetik, antsietateak eta estresak ekidin egin dezakete hizkuntza eskuratzea. Bestetik, ikasle horien bizi-erperientzia aberatsa eremu emankorra izan daiteke eztabaida esanguratsuetarako eta lotura kultural sakonetarako.

Hortaz, irakasleok kontziente izan behar dugu kulturarteko gaitasunak zer nolako garrantzia duen komunikazioa arrakastatsua izan dadin (Meyer, 1991); era berean, ikasle helduak, bere kulturarekin eta mundua ulertzeko moduarekin bat, beste hizkuntza baten gaitasunez, jarrerez eta erreferenteez jabetu daitezen beharrezko tresnak eman behar dizkiegu.

2. OINARRI PEDAGOGIKOAK: OINARRIZKO ESTRATEGIAK

Aipatutako berezitasun horiei heltzeko, ezinbestekoa da metodologia espezifiko bat garatzea, hizkuntza-gaitasunak, gaitasun pragmatikoak, pertsonen artekoak eta pertsonarenak berarenak garatzeko aukera ematen duten askotariko estrategiak bilduko dituen. Honako hauek dira funtsezko estrategietako batzuk.

- Elementu afektiboak eta bizipen-elementuak aintzat hartzea; bestela esanda, ikaskuntza ikasleen esperientziekin konektatzea. Horrela, edukia garrantzitsuagoa eta gogoangarriagoa izango da (Gardner eta Lambert 1972, apud Arnold eta Brown-2000, 30. or.), haien beharretatik hurbilagoa.
- Klasean giro atsegina eta estresik gabekoa sortzea, non akatsak ezagutzarako aukera gisa ikusten diren.
- Ikasleak ahalduntzea, ezagutzarako sarbidearen jabe izan daitezen, prozesuan autonomia sustatzeko tresnak eskainiz (Bruner, 1966; Rogers, 1975).
- Ikasestiloak errespetatzea, haien ingurunearekin eta munduarekin zerikusia duten gaien bidez. Gaiak hainbat formatu eta testu-motatan aurkeztu behar dira (Fritzler, 2022).
- Jakin-mina pizten eta interesari eusten dieten jardueren bidez motibatzea (Deci, 1992, 60. or., apud Arnold eta Brown, 2000, 26. or.). Helburua da ikaskuntza berez xurgatzaile eta atsegingarri bihurtzen duen "fluxu-egoera" lortzea.
- Atzeraelikadura afektibo eta beti positiborako espazioa ahalbidetzea, zeinetan arreta sormen-prozesuan jartzen den eta ez azken emaitzan.

Estrategia horiek gaitzen dituen ikuspegi pedagogiko bat hartzean, hizkuntza bat irakasteaz gain, aurkikuntza pertsonal eta kulturalerako bidea posible egiten ari gara. Hizkuntza-klasea esperientziak ematen duen ezagutzak eta ikaskuntza berriaren emozioak bat egiten duten espazio bihurtzen da, eta hala, gure ikasle heldu nagusien bizitza izugarri aberastu dezakeen sinergia paregabea sortzen da.

Bestela esanda, ikasle helduek beste hizkuntza bat ikastearen helburua da hizkuntzarekin eta kulturarekin lotura esanguratsuak garatzea, eta hizkuntza horretako hitzuneekin, haien itxaropen eta helburuekin bat, elkarri eragiteko gaitasunari bide ematea.

3. DIDAKTIKA HOLISTIKOA, KULTURARTEKOA ETA MULTISENTSORIALA

Heldu baten ikas-irakas prozesuak beti abiatu behar du input ulergarri eta afektibo batetik (Krashen, 1985), jakin-mina eta, batez ere, segurtasuna transmititzeko, dakitena praktikan jartzeko haien bizi-esperientziatik eta hizkuntza-biografiatik abiatuta.

Irakasleentzako gida gisa, bi fase dira didaktika egoki baten oinarri.

- 1. fasea.
 - Aurrezagutza aktibatzea, askotarikoa den eta xede-taldeko kideek informazioa hurbiltzeko duten moduarekin bat datorren input abiarazle baten bidez.
 - Eskema berriak zeregin motibagarrien bidez buruz ikasten saiatzea.
 - Oroimen-estrategia zaharretara jotzea, esaterako, lehenengo hizkuntzara itzultzea edota esanahiak argitzeko esaldi motzak edo irudiak erabiltzea.
 - Eduki berriez jabetzeko prozesua modu multisentsorialean aktibatzen saiatzea.
 - Beste hizkuntza baten edo batzuen aurretiazko ezagutzarekin antzeko erabilera egitea.
 - Ikas-irakas prozesu horretan inplikatzeko saiatzea.

- 2. fasea.
 - Memoriaren prozesuak aktibatzea: kodetzea, biltegiatzea eta berreskuratzea.
 - Egitura propioak eta xede-hizkuntzarenak formalizatzea.
 - Egitura ulertzea, hainbat egoeratan erabilia.
 - Informazioa antolatzea, sare kontzeptualak sortzea.
 - Ezagutza mapatzen saiatzea.
 - Kulturarteko erkaketak ikaskuntza-tresna gisa aktibatzea.

Aipatutako faseetako puntuak abiarazteko, hizkuntza-edukiak helduen interes eta beharretara ez ezik, baldintza fisiko eta mentaletara ere egokitutako dinamiken bidez txeretatuko dituzten jarduera didaktikoak diseinatu behar dira. Bestela esanda, aintzat hartu behar da irakasteko praktikak ikaskuntza-eredu holistikoa ezarri behar duela, ikaskuntza- eta giza-trebetasun guztiak bilduko dituen, osagai soziokulturalari eta digitalari toki emateko.

Material didaktikoak erabiltzeko, lotura zuzena egon behar du xede-taldearen eta irakaslearen irakaskuntza-estiloaren artean (Garton, S. eta Graves, K., 2014). Horrexegatik da ezinbestekoa, lehenik eta behin, ikasleen itxaropen eta lehentasunak ebaluatzea, klasean erabiliko diren baliabideak, jardunbide pedagogikoak eta teknikak hautatzeko.

Jarraian, ikaskuntza eraginkorra sustatzen laguntzen duten eta ikasle horien dimentsio afektibo, kognitibo eta sozialak kontuan hartzen dituzten ikaskuntza-trebetasunak garatzeko zenbait jarduera eta dinamika zehaztuko ditugu.

3.1 AHOZKO EKOIZPENERAKO JARDUERAK

- i. Rol-jokoak: eguneroko egoerak sortzea, ikasleek giro seguru eta kontrolatuan izan ditzaten elkarrizketak.
- ii. Aurkezpen laburrak: ikasleak bizpahiru minutuz beren intereseko gaiez edo esperientzia pertsonalez mintza daitezen aukera ematea.
- iii. Debateak talde txikietan: gai errazen inguruko eztabaidak antolatzea, talde txikietan, presiorik gabeko parte-hartzea sustatzeko.

3.2. AHOZKOAREN ULERMENERAKO JARDUERAK

- i. Abesti ezagunak erabiltzea eta entzumen aktiboko zeregin errazak ematea; adibidez, hutsuneak betetzea, estrofak ordenatzea, etab.
- ii. Gai interesgarriei buruzko podcast laburrak hautatzea, ikasleen mailarako egikiak.
- iii. Bikoteka diktaketak egitea: batek irakurri eta besteak idatzi egingo du, eta gero, rolak aldatuko dituzte.
- iv. Audioak trukatzeko mezularitza digitaleko zerbitzuen bidez.
- v. Film laburrak edo luzeak modu gidatuan ikustea eta interpretazio-lanak egitea.

3.3 IRAKURKETA- ETA IDAZKETA-JARDUERAK

- i. Testu laburrak ozenki irakurtzea, ikasleak eta irakaslea txandakatuta.
- ii. Irakurketa mailakatuko testuak eskaintzea, idatzizkoaren ulermen-jarduerak egiteko edo plazer soilagatik irakurtzeko.
- iii. Material multimodalak ematea, sormenezko idazketa sustatzeko.
- iv. Ikasleen artean idatzizko mezuen trukea sustatzea, posta elektronikoaren bidez edo paperean.
- v. Plataforma birtualetan (Booking, Tripadvisor, YouTube, Instagram) idazketa-lanak diseinatzea, nahi dutena adierazteko edo iritzia emateko bide gisa.

3.4. JARDUERA INTERAKTIBOAK ETA LUDIKOAK

- i. Hizkuntzak irakasteko bereziki diseinatuta ez dauden jolas ezagunen bertsoiak erabiltzea, hala nola Scrabble, Pictionary, hitz-zerrendak, etab.
- ii. Langai den gaiarekin lotutako hitzak edo irudiak dituzten bingo-, domino- edo *memory*-txartelak sortzea.
- iii. Kulturari buruzko galderen eta erantzunen joko bat diseinatzea, ikasleen mailari egokitutakoa.

Interesgarria da, halaber, ikaskuntza eta denbora-pasa lotzen dituzten aplikazioak erabiltzea, besteak beste:

- i. ezagutza sustatzeko memoria-joko edo buru-hausgarri digitalak;
- ii. ikasleen interesetara eta ikasteko erritmora egokitutako online ikastaroen plataformak.

3.5 KULTURAN MURGILTZEKO JARDUERAK

- i. Zinema-saioak antolatzea lehenengo hizkuntzan azpigituluak dituzten filmekin, eta, jarraian, eztabaida txiki bat egitea.
- ii. Sukaldaritza-tailerrak antolatzea, xede-hizkuntzan ematen zaizkien errezetei jarraikiz plater tipikoak prestatzeko.
- iii. Bilera informalak antolatzea, gaurkotasan-gaiei edo denon interesekoei buruz hitz egiteko.

3.6. JARDUERA MULTISENTSORIALAK

- i. Ikusmen-jarduerak: memoria aktibatzeke, eta, ondorioz, lehen hizkuntzan zein beste hizkuntza batean lexikoa aktibatzeke argazkiak eta irudiak erabiltzea.
- ii. Usaimen-jarduerak: esperientziak eta zentzumen-estimuluak lotzea, adibidez, elikagaiak, aromak, etab.
- iii. Entzumen-jarduerak: musika instrumentalak zein errealitateko elementuei edo egoerei buruzko audioak baliatzea, objektuak eta espazioak antzemateko edo sentimenduak eta oroitzapenak aktibatzeke, interpretazio pertsonala sustatuta.

3.7. BELAUNALDIARTEKO JARDUERAK

- i. Aitona-amonak eta bilobak lotzen dituzten proiektuak sortzea, hala nola kultura-azokak, familiako albumak...
- ii. Bizi-istorioak eta -esperientziak partekatzea haurtzaroko objektu edo oroitzapenen bidez.
- iii. Sare sozialen zerbitzuak erabiltzea, komunikazio-zubi izateko eta praktika-komunitatea eraikitzeke.
- iv. Bideokonferentzia-aplikazioak erabiltzea, hainbat belaunaldiren arteko topaketa birtualak ahalbidetzeko.
- v. Narrazio digitaleko jarduerak egitea, nagusiek beren istorioak multimedia tresnak erabilita parteka ditzaten.
- vi. Irudiak, soinuak eta testua konbinatzen dituzten aurkezpen interaktiboak sortzea.

3.8. GAITASUN DIGITALA GARATZEKO JARDUERAK

55 urtetik gorako helduentzako jardueretan teknologia txertatzeko, garrantzitsua da haien ezaugarri espezifikoak aintzat hartzea eta tresna digitalak baliatzea ikasleen ikaskuntza- eta sozializazio-esperientzia aberasteko. Hau da, ezinbestekoa da tresna teknologikoak helduen beharretara egokitzea.

Honako hauek dira jarraitu beharreko estrategietako batzuk.

- i. Testu handi eta irakurterrazak dituzten interfazeak erabiltzea, ahal dela xedehizkuntzan.
- ii. Diseinu intuitiboak dituzten eta nabigatzeko errazak diren aplikazioak hautatzea.
- iii. Teknologia berriak erabiltzeko urratsez urratseko tutorialak eskaintzea.

Honako hauek izan daitezke helduak teknologia modu praktikoan erabiltzera motibatzeko proposamen interesgarriak.

- i. argazkigintza digitalari eta irudien oinarritzko edizioari buruzko tailerrak;
- ii. interes pertsonaleko gaiei buruzko informazioa online bilatzeko ikastaroak;
- iii. esperientziak eta ezagutzak partekatzeko blog edo webgune errazak sortzea.

Bestalde, sare sozialen zerbitzuak (Facebook edo WhatsApp, esate baterako) erabiltzeak lagundu egiten die senitartekoekin edo lagunekin harremanetan egoten, bai eta sozializazio birtuala sustatzeko interes komunetan oinarritutako online taldeak sortzen ere.

4. AZKEN GOGOETAK

Artikulu honetan, 55 urtetik gorako helduentzako ikuspegi pedagogikoa garatzeko funtsezko oinarriak aurkeztu dira, bai eta parametro horiekin batera doazen zenbait jardura didaktiko ere.

Irakaskuntzaren ikuspegiaren arabera, ia ezinbestekoa da aintzat hartzea ikasleek beste hizkuntza bat ikasteko dituzten arrazoiak eta ikasleen zein xede-taldearen testuinguru historiko soziala. Ere berean, *translanguage* delakoaren erabilera errespetatu behar da (García, O. & Lin, A. M. Y., 2016), hiztun elebidun gisa eskura ditugun tresna guztiak erabilita.

Bestalde, hautatutako gaien eta eduki lexikal gramatikalaren arteko hari gidariari eutsi behar zaio, jarraibide argiak dituzten jardura malgu eta multisentsorialetan oinarritua, ikaskuntzan autonomia sustatzeko. Halaber, garrantzitsua da tamaina egokiko tipografia eta irudi argiak erabiltzea, eta lan-orrialdeak testuz ez zamatzea.

Azpimarratu behar da erritmoa egokitu egin behar dela, ikasleei beren erritmoan lan egiteko aukera emateko, denbora-presio handirik gabe, eta atzeraelikadura positiboa emateko beti, ikasleen lorpenak eta aurrerapenak nabarmentzen dituzten iruzkin konstruktiboen bidez. Gainera, ahal dela, eskolako taldean lan kolaboratiboa eta kooperatiboa sustatu behar dira.

Nolanahi ere, punturik garrantzitsuena da segurtasun- eta konfiantza-giroa sortzea, ikasestiloak errespetatzea eta autoestimua eta independentzia sustatzea, hizkuntza-biografia zehatza eta kultura-ezagutza duten ikasleak eta pertsonak baitira.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia

- Arnold, J. (2000). *La dimensión afectiva en el aprendizaje de idiomas*. CUP.
- Bruner, J. S. (1966). *Toward a theory of instruction*. Belkapp Press.
- Fritzler, M. (2022). En búsqueda de la competencia crítica en el aula. Narrativa transmedia aplicada a la enseñanza de una lengua extranjera. In R. Fine, F. F. Goldberg & O. Hasson (koord.), *Mundos del hispanismo: una cartografía para el siglo XXI*. Vervuert.
https://doi.org/10.31819/9783968693002_050
- García, O. & Lin, A. M. Y. (2016). Translanguaging in Bilingual Education. In O. García, A. Lin & S. May (ed.), *Bilingual and Multilingual Education, Encyclopedia of Language and Education* (1-14. or.). Springer International Publishing.
- Garton, S. y Graves, K. (2014). Identifying a Research Agenda for Language Teaching Materials. *The Modern Language Journal*, 98(2), 654-657.
<https://doi.org/10.1111/modl.12094>
- Krashen, S. D. (1985). *The Input Hypothesis: Issues and Implications*. Longman.
- Meyer, M. (1991). Developing transcultural competence: Case studies in advanced language learners. In D. Buttjes & M. Byram (ed.), *Mediating Languages and Cultures: Towards an Intercultural Theory of Foreign Language Education* (136-158. or.). Multilingual Matters.
- Rogers, R. W. (1975). A Protection Motivation Theory of Fear Appeals and Attitude Change1. *The Journal of Psychology*, 91(1), 93-114.
<https://doi.org/10.1080/00223980.1975.9915803>